


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004ko URRIA

## Euskal AEko industri jarduera %2,5 hazi zen 2004ko urrian

**2004ko lehenengo hamar hilabeteetako bilakaerak %3,5eko hazkundera izan zuen, 2003ko aldi beraren aldean.**

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko urrian, %2,5 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, urte arteko tasan. Balio absolututan, urte arteko aldakuntza %-4,9koa izan zen, urriak aurtien hiru lanegun gutxiago izan dituelako iaz baino. 2004ko lehenengo hamar hilabeteetako hazkunde metatua %3,5ean kokatu zen balio homogeneotan, eta %3,8an bi ekitaldietako egutegiko aldeak kontuan hartu ezean.

### Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



(\*) 2004ko urriko urte arteko hazkunde zuzendua  
Iturria: EUSTAT

2004ko urrian, urte arteko aldakuntzarik positiboena, balio absolututan, hots, aurtengo urriak iazkoak baino hiru lanegun gutxiago izan dituela kontuan hartu gabe, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *ehungintza eta jantzigintza* (%6,9), *papera, edizioa eta arte grafikoak* (%4,0), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%1,6) eta *kautxua eta plastikoa* (%1,5) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-21,2), *larruaren eta oinetako en industria* (%-21,0), *ez-metalezko industria* (%-16,7), *bestelako en manufakturak* (%-15,4) eta *elikagai-industria* (%-13,8) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo hamar hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%20,7), *petrolioaren finntzea* (%10,5), *material elektrikoa* (%6,8), *kautxua eta plastikoa* (%6,0) eta *garraio-materiala* (%4,9) arloei, besteak beste. Tasa negatiboak, berriz, honako hauek besterik ez zituzten izan: *larruaren eta oinetako en industria* (%-15,0),

metalezko eta ez-metalezko meak (%-12,2), ez-metalezko industria (%-11,1) eta bestelako manufakturak (%-7,3) arloek.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2004ko urrian, jaitsi egin ziren *kontsumo-ondasunen* (%-2,7) urte arteko tasak; *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* hazkunde arina ekarri zuten (%0,5), baina hala ere, *kontsumo-ondasun iraunkorren* (%-8,3) jaitsierak eragin handiagoa izan zuen. *Bitarteko ondasunen* (%1,1) urte arteko tasak ere hazi egin ziren, *energiarenak* gehixeago (%3,7) eta bereziki, *ekipo-ondasunenak* (%6,4). Hori guztia urte arteko konparazioko datu homogeneotan.

Urteko lehenengo hamar hilabeteetan, balio absolututan, *energiak* %17,7ko hazkundera metatu zuen, *ekipo-ondasunek* %3,4koa eta *bitarteko ondasunek* %2,6koa, baina *kontsumo-ondasunek* %0,4ko gutxitzea. Azken horiek honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrek* %-3,4ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrek* %1,1era.

Lurralde historikoka, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten balio homogeneotan: %7,0 hazi zen Araban, %1,3 Bizkaian eta %1,3 Gipuzkoan. Urteko lehenengo hamar hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabak (%8,3) lortu zituen, ondoren Bizkaiak (%2,8) eta azkenik Gipuzkoak (%1,6).

**Taula: 2004ko URRIA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)**

Kontzeptua	2004		2003	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
<b>Indize orokorra: Euskal AE</b>	-4,9	2,5	1,6	1,6
Araba	-1,1	7,0	2,3	2,3
Bizkaia	-5,5	1,3	2,1	2,1
Gipuzkoa	-6,3	1,3	0,7	0,6
<b>Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE</b>				
Kontsumo-ondasunak	-9,2	-2,7	3,4	3,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrek	-16,7	-8,3	-3,7	-3,7
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	-4,8	0,5	8,0	8,0
Ekipo-ondasunak	-1,6	6,4	-2,1	-2,1
Bitarteko ondasunak	-6,3	1,1	0,5	0,5
Energia	0,2	3,7	17,1	17,3

(\*) egutegiaren eragina zuzenduta

**Iturria: EUSTAT**

**Argibide gehiagorako:**

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Datu-Bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)